

Molekulekin inprimatutako polimeroak antigorputz naturalak ordezkatzeko etorkizuneko tresna gisa

*(Molecularly imprinted polymers as promising tools for the
replacement of natural antibodies)*

Ainhoa Elejaga-Jimeno^{*1}, Amaia Alday-Izaguirre¹, Lucía Díez-Caballero¹,
Nora Unceta¹, M. Aránzazu Goicolea¹, Ramón J. Barrio¹, Gontzal García del
Caño², Alberto Gómez-Caballero¹

¹ Kimika Analitikoa Saila, Farmazia Fakultatea (Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU)

² Neurozientziak Saila, Farmazia Fakultatea (Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU)

LABURPENA: Molekulekin inprimatutako polimeroak (MIP) ligando (ioi, konposatu kimiko, peptido, proteina edo mikroorganismo) batekiko memoria gordetzen duten makromolekula sintetiko adimendunak dira, ligando horren presentzian sintetizatuak izaten baitira. Oro har, hartzaile artifizial biomimetiko gisa lan egiten dute, jatorri endogenoa duten hartzaileek baino afinitate handiagoa erakutsiz askotan. Azken hamarkadetan, MIPen sintesi-prozesuan aurrerapauso handiak eman dira, erradikal askeen bidezko polimerizazioetatik hasita, desaktibazio itzulkor bidezko polimerizazio erradikalean oinarritutako sintesietaraino, gero eta polimero homogeneoagoak lortuz forma eta tamainari dagokionez. Azken urteotan, MIPen aplikazioak nabarmen zabaldu dira, besteak beste, matrize ezberdinetatik konposatu kimiko ezberdinen erauzketa, purifikazio eta kontzentrazioarako, proteinen determinazioarako, farmakoen askapen kontrolaturako, immunoentsegu mota ezberdinetan, edota sentsores kimikoen ezagutza-elementu gisa. Oro har, antigorputz naturalak ordezkatzeko erabil daitezkeela frogatu da. Artikulu honetan, MIPen garapenerako erabiltzen diren ohiko polimerizazio- eta inprimatze-estrategia ezberdinak deskribatuko dira, bioanalisiaren arloan dituzten aplikazio ezberdinak ere jorratuz.

GAKO-HITZAK: MIP, molekulekin inprimatutako polimeroak, hartzaile artifiziala.

ABSTRACT: *Molecularly imprinted polymers (MIP) are synthetic macromolecules that retain chemical memory for a certain ligand. They work as biomimetic artificial receptors, often demonstrating higher affinity than their natural counterparts. Over the past few decades, the synthesis of MIPs has advanced significantly, evolving from the bulk polymerisation method to reversible deactivation radical polymerisation, giving rise to more homogeneous MIPs as regards size and shape. Applications of MIP have expanded notably in recent years, being employed for separation, purification, and concentration of chemicals, for protein determination, as drug carriers for controlled release, in different types of immunoassays, and as recognition elements in chemical sensor devices. Overall, these materials have proven their potential to replace natural antibodies in the bioanalytical field. In this article, the most common polymerisation strategies and imprinting methods for MIP production will be summarised, including their most relevant applications in bioanalysis.*

KEYWORDS: MIP, molecularly imprinted polymers, artificial antibody.

*** Harremanetan jartzeko/Corresponding author:** Ainhoa Elejaga-Jimeno, Kimika Analitikoa Saila, Farmazia Fakultatea (UPV/EHU), <https://orcid.org/0000-0001-8017-0517>, ainhoa.elejaga@ehu.eus

Nola aipatu/How to cite: Elejaga-Jimeno, Ainhoa; Alday-Izaguirre, Amaia; Díez-Caballero, Lucía; Unceta, Nora; Goicolea, M. Aránzazu; Barrio, Ramón J.; García del Caño, Gontzal; Gómez-Caballero, Alberto (2025). «Molekulekin inprimatutako polimeroak antigorputz naturalak ordezkatzeko etorkizuneko tresna gisa», *Ekaia*, 48, 2025, DOI: <https://doi.org/10.1387/ekaia.27254>

Jasoa: urtarilak 31, 2025; Onartua: apirilak 07, 2025

ISSN 0214-9001-eISSN 2444-3225 / © UPV/EHU Press




Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

1. SARRERA

Molekulekin inprimatutako polimeroak (MIP, *molecularly imprinted polymers*) konposatu kimiko, makromolekula edo mikroorganismo batekiko memoria gordetzen duten polimeroak dira. MIPak, oro har, hartzaile artifizial gisa ezagutzen dira, eta, askotan, jatorri endogenoa duten hartzaileek baino selektibitate eta afinitate handiagoak izaten dituzte [1]. Antigorputz naturalekin alderatuz, MIPEk hainbat abantaila dituzte; besteak beste, sintesia errazagoa da, egonkortasun termiko eta mekaniko altuagoak dituzte, kostua baxuagoa da, eta lotura guneen dentsitatea handiagoa da [2]. Abantaila horiei esker, MIPEk antigorputzak, entzimak eta antzeko hartzaile biologikoak ordezkatzeko tresna paregabeak direla erakutsi dute eremu askotan, hala nola banaketa- eta purifikazio prozesuetan, katalisi entzimatiakoetan entzimen ordezeko gisa, sentsoreetan, farmakoen askapen kontrolatuan, eta beste hainbat aplikazio biomedikotan ere bai [3].

MIPak ligando batekiko selektiboak dira. Horretarako, itu den ligando bera, edo egitura kimiko antzekoa duen konposatu bat erabili ohi da beren sintesirako, molde edo pseudomolde bezala izendatzen direnak, hurrenez hurren [4]. Molde edo *template* hori izan liteke ioi metalikoa, masa molar txikiko konposatu organikoa, peptidoa, proteina, gluzidoa edo lipidoa. Horiek monomero funtzionalez eta elkargurutzatzaileez osatutako nahasketa batera gehituko dira, eta, polimerizazioa abiarazteko, erradikal askeen iturri izango den hasarazle bat ere bai (1. irudia).



1. irudia. MIPen inprimatze-mekanismoaren irudi eskematikoa.

Prozesu horretan, molde eta monomero funtzionalen artean gertatzen diren elkarrekintzen ondorioz, monomero-molde konplexu bat eratu, eta, elkargurutzatzaile baten eraginagatik, moldearen inguruan hiru dimentsioko sare polimeriko bat sortuko da polimerizazio-erreakzio baten bidez. Horren ostean, moldea sare polimerikotik erauziko da, ituarekiko osagarriak diren barrunbeak libre gera daitezen, eta, hartara, polimeroa erabilgarria izan dadin itua lotzeko [5, 6].


Inprimatutako polimeroekin erlazionatutako lehenengo artikulua Polyakov-ek argitaratu zuen 1931. urtean [7] (2. irudia). Lan horretan, uretan gauzatu zuen sodio silikatoaren polimerizazioa, $(\text{NH}_4)_2\text{CO}_3$ erabiliz gelifikatzaile moduan. Jarraian, gehigarri gisa, bentzenoa, toluenoa, xilenoa eta antzeko konposatuak gehitu zizkion sortutako silize-gel ezberdinei, eta 20-30 egunez lehortzen utzi zituen. Lehortutako silizeak ur beroarekin garbitu zituen, gehigarriak erauz zitezen, eta, jarraian, absortzio-froga ezberdinak gauzatu zituen gel bakoitzarekin. Silizeek adierazitako gehigarriekiko absortzio-ahalmen handiagoa zutela adierazi zuen, antzeko egitura zuten beste konposatu batzuen aurrean. Selektibitate hori silizean sortutako egitura-aldaketen ondorioa zela ondorioztatu zuen, erabilitako gehigarrien natura islatzen zuten aldaketak, alegia. 1949. urtean, Dickey-ek [8], Polyakov-en antzeko prozedura bat erabiliz, metilo laranja eta homologoak ziren beste hainbat koloratzaile alkilatu gehitu zituen sodio silikatozko disoluzio ezberdinen gain. Harrezkero, gehigarrien presentzian sortutako silizegelezko polimeroei aplikazio ezberdinak ematen hasi zitzairen. Horren harira, 1950eko hamarkadan, azido mandeliko eta azido kanforsulfonikoaren enantiomeroekiko selektibitate kirala zuten silizeak garatu, eta bereizketa kromatografikorako fase geldikor bezala erabiltzen hasi ziren. Horri esker, konposatu horien nahasketa errazemikoetatik abiatuz, enantiomero ezberdinak bereizi ahal izan ziren [9].

1970eko hamarkadatik aurrera silize-gelen erabilerak nabarmenki egin zuen behera, batez ere silizearen gainazalaren heterogeneotasuna, adsortzio-ahalmen ahula, eta sintetizatzeako eskuragarri zeuden errektibo kopuru txikiagatik [10]. Horrek guztiak bat egin zuen Wulff-ek [11] eta Takagishi-k [12] polimero organikoetan egindako inprimatze molekularren lehen aurrerapausekin. Ikertzaile horiek monomero funtzionalen eta moldearen arteko lotura kobalentean oinarritu ziren. Era horretan lortutako sare polimerikoetan, moldearen inprimatzea eraginkorragoa zen, inprimatze gune homogeneoagoak lortuz silize-gelezko matrizeekin baino. Aitzitik, behin polimerizazioa amaituta, zailagoa zen inprimatze guneetatik moldea askatzea, eta, ondorioz, polimeroek itua lotzeko ahalmen txikiagoa zuten.

1981. urtean, Mosbach eta lankideak, metodo kobalentearen desabantailai aurre egiteko, monomero funtzionalen eta moldearen arteko lotura era ez-kobalentean oinarritu ziren [13]. Metodo horretan, molde-monomero konplexuaren eraketa itzulgarria da, sintesia gauzatu ostean moldea-

ren askatzea errazten duena. Aurkikuntza horri esker, 1990eko hamarkadatik aurrera, MIPen inguruko ikerkuntzek garapen handia izan zuten. 1993. urtean, Vlatakis-ek eta lankideek frogatu zuten, interes kliniko handiko biomolekulentzat existitzen ziren antigorputzak ordezkatzeko, molekulekin inprimatutako polimeroak eraginkorrak izan zitezkeela [14]. Hala ere, proteina handien (>50-100 kDa) inpresioak zailtasun handiak zituela ikusi zen, egoera ez-fisiologikoetan zuten egonkortasun faltagatik, eta agregazio- edota konformazio-aldaketak eragin zitzakeen disolbagarritasun mugatuagatik [15]. Arazo horiek saihesteko, Rachkov-ek eta Minou-rak epitopo bidezko inpresioa garatu zuten 2000. urtean [16]. Sintesi mota horretan, molde bezala proteina osoa erabili beharrean, proteina horren sekuentzia peptidiko bat soilik erabiltzea proposatu zuten.

Ordura arte garatutako MIPen tamaina eta morfologia irregularrak zirenez, 2007an, Yoshimatsuk eta lankideek polimerizazio-baldintza ezberdinak proposatu zituzten ezaugarri horiek kontrolatzeko [17]. Horri esker, tamaina nanometrikoa zuten MIP homogeneousak garatzea lortu zuten. 2008an, Sheak eta lankideek selektibotasun eta afinitate altuko MIP nanopartikulak sintetizatu zituzten ingurune urtsuan [18]. Sintesi-estrategia berri horren garapenak garrantzi biologikoa zuten beste molde batzuen erabilera sustatu zuen. Aurkikuntza horietan oinarriturik, bi urte beranduago, Shearen taldeak molekulekin inprimatutako nanopartikulak *in vivo* entseguetan aplikatzea lortu zuen toxiko peptidikoaren identifikazio eta neutralizaziorako [19]. Aurrerapauso horrek MIPen toxikotasunari, biobateragarritasunari eta internalizazioari buruzko ikerkuntzak bultzatu zituen ondorengo urteetan [20].




2. irudia. Inprimatze molekularren garapen kronologikoa.

Ordura arte erabiltzen ziren inprimatutako nanomaterialen sintesirako estrategiek moldea polimerizaziorako nahasketan disolbatuta egotea eskatzen zuten, horrek dakartzan desabantailekin, inprimatze-tokien heterogeneotasunari dagokionez batik bat. Horren aurrean, 2013. urtean, Piletsky-

ren taldeak proposatu zuen MIP nanopartikulen sintesia fase solidoan egitea [21]. Teknika horretan moldea beirazko partikulen gainean immobilizatzen da, eta itu molekularekiko afinitate oso altuko nanopartikulak lortzen dira.

MIPek ituarekiko duten selektibitate eta espezifikotasun handiari esker, eta bereziki antigorputzekin alderatuz eskaintzen dituzten abantailei esker, sintesi-estrategia berri eta eraginkorrak garatzen ari dira etengabe. Gainera, MIPen aplikazioak esparru desberdinetara hedatzen ari dira, batez ere biomedikuntzaren arloan. Horren adierazgarri da azken 20 urteotan egon den MIPEi buruzko argitalpen kopuruaren gorakada (3. irudia). Horregatik guztiatik, MIPen garapen-prozesuan gaur egun gehien erabiltzen diren mekanismoak aztertuko dira artikulu honetan, baita polimerizazio-teknika desberdinak, inprimatze-metodoak, eta garatu daitezkeen MIPen formatu desberdinak ere.




3. irudia. Inprimatze molekularri buruzko argitalpen kopuruaren garapena azken hamarkadetan [22].

2. INPRIMATUTAKO POLIMEROEN SINTESIA

Gaur egun, MIPen sintesia polimero organikoen inprimatze molekularren bidez gauzatzen da nagusiki. Horretarako, polimerizaziorako inguru-

nean hainbat konposatu kimiko dira beharrezkoak: moldea, monomero funtzionalak, elkargurutzatzailea, hasarazlea eta disolbatzaile egoki bat [23]. Monomero funtzionalen eginkizun nagusia izango da moldearekin aurrepolimerizazio konplexu edo aduktu bat eratzea, eta elkarrekintza horien indarrak eta estekiometriak baldintzatuko dute sortuko diren barrunbeen heterogeneotasuna eta afinitatea. Elkargurutzatzaileek monomero funtzionalekin erreakzionatuko dute polimerizazio-erreakzio batean, eta molde-monomero konplexua espazialki finkatuko dute hiru dimentsioko egitura egonkor bat eratuz. Disolbatzaileak dispartzio-ingurune bezala jarduten du, eta bere funtsezko eginkizuna MIPei egitura porotsua ematea izango da. Azkenik, hasarazlea polimerizaziorako beharrezkoak diren erradikal aktiboen iturria izango da. Konposatu horren ezaugarrien arabera, polimerizazio-metodo ezberdinak garatu dira, MIPen sintesirako ere aplikatu izan direnak (4. irudia).




4. irudia. MIPen polimerizazio-metodoen sailkapena eta ezaugarri orokorrak.

2.1. Polimerizazio-metodoak

Erradikal askeen bidezko polimerizazioa (EAP) izan da ohiko polimerizazio-metodo nagusia MIPak sortzeko; haatik, azken urteotan polimerizazio kontrolatuan oinarritutako metodoek hartu dute horren lekukoa. EAP prozeduran, hasarazlearen aktibazio termikoa edo fotokimikoa bultzatuz ematen zaio hasiera polimerizazioari, beroa edo erradiazio ultramorea dela medio. Hasarazlea bi erradikal aktiboetan disoziatzen da, lotura bikoitzeekin erreakzionatuko dutenak, kate-polimerizazioaren hasiera eraginez (5. irudia). EAP estrategiaren bidez lortzen diren polimeroak oso heterogeneoak dira masa molarri dagokionez; alegia, polidispersitate-maila altua dute. Teknika horren desabantailak aurre egiteko, mekanismo kontrolatuan oinarritzen diren polimerizazio-estrategia berriak garatu dira [24].

Erradikal aske bidezko polimerizazioa (EAP)




5. irudia. EAP polimerizazio-metodoaren eskema orokorra.

Polimerizazio erradikal kontrolatuaren edo desaktibazio itzulkor bidezko polimerizazio erradikalaren (DIPE) bidez polimero homogeneouskoak lor daitezke EAPrekin konparatuz [25]. Gainera, DIPE metodoetan polimerizazioa edozein momentutan eten liteke, eta, nahi izanez gero, berriro hasi; alegia, kontrolpeko erreakzio polimerikoak lirateke [24]. Gaur egun, polimerizazio kontrolatua oinarritutako teknika ezberdinak aurki daitezke literaturan [26], besteak beste, erradikal aske egonkorren bidezko polimerizazioa (EAEP), atomo-transferentzia bidezko polimerizazio erradikala (ATPE) eta adizio-zatikatzeko eta kateen transferentzia itzulgarrian oinarritutako polimerizazioa (RAFT, *Reversible Addition-Fragmentation chain Transfer polymerization*). Aldi berean, EAEPren barruan, *iniferter* bidezko polimerizazioa eta nitroxidoen bidezko polimerizazio erradikala (NPE) bereizten dira (4. irudia).


Iniferter bidezko polimerizazioa Otsuk eta lankideek garatu zuten 1982. urtean, DIPEen artean lehenengo deskribatu zen polimerizazio-metodoa izanik [27]. *Iniferter* izeneko konposatuek hasarazle (*initiator*), kate-transferentziarako agente (*chain transfer agent*) eta bukarazle (*terminator*) gisa parte hartzen dute polimerizazio-erreakzioetan (6. irudia). Polimerizazio horrek, EAPen aurrean, sintesi-prozesuaren kontrol handiagoa eta polimeroetan sortu diren lotuneen banaketa homogeneouskoagoa bermatzen du [6]. Bestetik, NPE polimerizazioa, 1986. urtean lehenengoz deskribatua, *iniferter* bidezko polimerizazioaren antzeko mekanismo kontrolatua oinarritzen da, baina nitroxido konposatuak erabiliz (6. irudia) [28]. Hala ere, teknika horrek dituen desabantailengatik (monomero askorekin duen bateraezintasuna eta erabili beharreko tenperatura altuak direla-eta), behin soilik erabili izan da inprimatutako polimeroen arloan [29]. ATPE metodoari dagokionez, erredox-prozesu batean oinarritzen da, non trantsiziozko metal konplexu eta haluro organiko banak parte hartzen baitute. Metodo horren bitartez polimerizazioa modu eraginkorrean kontrolatzen da, eta, gainera, bateragarria da monomero askorekin [29].

Erradikal aske egonkorren bidezko polimerizazioa (EAEP)

Iniferter bidezko polimerizazioa



Nitroxidoen bidezko polimerizazio erradikala (NPE)




6. irudia. Iniferter bidezko eta nitroxidoen bidezko polimerizazio-estrategien eskema orokorra.

1998. urtean, eraginkortasun oso altua zuen polimerizazio kontrolatu teknika berri bat garatu zen, alegia, RAFT polimerizazioa (7. irudia) [30]. Gaur egun, polimerizazio mota hori da abantaila gehien dituen: erreakzio-baldintza ezberdinetan eta monomero ezberdinekin gauzatu daiteke, polimeroen masa molekularren kontrola ahalbidetzen du, eta horien heterogeneotasuna murriztu. Hala ere, polimerizazio-denborak motelak dira, eta zaila izaten da masa molekular handiko polimeroak lortzea estrategia horren bitartez. Teknika hori MIPen garapenerako erabiltzen diren polimeri-

zazio-estrategien artean egokiena dela uste da [31], lortzen diren MIPen lotuneek EAP teknikarekin lortutakoek baino egitura askoz homogeneoagoa dutelako, antigorputz monoklonalen portaera hobe imitatuz afinitateari eta selektibotasunari dagokienez.

Adizio-zatikatze eta kateen transferentzia itzulgarriari oinarritutako polimerizazioa (RAFT)




7. irudia. RAFT polimerizazioaren eskema orokorra. I: hasarazlea; M: monomeroa; P_n eta P_m : espezie erradikal hedatzaileak.


2.2. Inprimatze-metodoak

Inprimatze molekularren historian zehar, molekula moldearen eta polimerizazioan parte hartzen duten monomero funtzionalen artean eratzen den elkarrekintzaren arabera, inprimatze-metodo desberdinak garatu dira: kobalentea, ez-kobalentea eta erdikobalentea [11, 12]. Metodo kobalentearen abantaila nagusia da sintesia baldintza estekiometrikoei gertatzen dela, eta, horrela, talde funtzionalak beti modu homogeneoan banatzen diren lotura guneetan kokatu, eta espezifikoak ez diren elkarrekintzak murrizten dira. Haatik, metodo honen desabantaila nagusia da molde bezala erabil daitezkeen konposatu motak (besteak beste, diolak, aldehidoak, zetonak, aminak eta azido karboxilikoak) mugatuak direla [32]. Mekanismo ez-kobalentean, aldiz, gertatzen diren loturak ionikoak, hidrogeno-zubiak, Van der Waals loturak eta disulfuro-zubiak dira. Elkarrekintza horiek, lotura kobalenteekin alderatuz, ahulagoak dira, baina zenbait lotura ahulek gune berean parte hartzen dutenean, elkarrekintza sendoak sor ditzakete.


a) Bloke polimerizazioa




b) Hauspatze bidezko polimerizazioa



c) Emultsio bidezko polimerizazioa



d) Sintesia fase solidoan



8. irudia. MIPen sintesirako erabiltzen diren ohiko prozedura ezberdinen irudi eskematikoa.


Metodo erdikobalenteak, azkenik, metodo kobalentearen eta ez-kobalentearen abantailak batzen ditu. Kasu horretan, moldearen monomero funtzionalari kobalentekei lotzen zaionez, lotura guztiak banaketa homogeneoa da. Aitzitik, iturri molekularen birlotzea elkarrekintza ez-kobalente bidez gertatzen da; beraz, difusioaren bidezko murrizketaz gain, ez da inongo mugaketa zinetikorik egongo [32, 33].

2.3. Inprimatutako polimeroen formatuak

EAP eta DIPE estrategiak erabiliz, MIPen sintesia burutzeko teknika desberdinak garatu dira: bloke-polymerizazioa, hauspeatze edo emulsio bidezko polymerizazioak eta sintesia fase solidoan (8. irudia). Teknika horien bidez MIP formatu desberdinak lortzen dira, besteak beste, polimero monolitikoak, mikro- edo nanopartikulak eta mintzak.

2.3.1. Polimero monolitikoak

Bloke-polymerizazioa da MIPen sintesia gauzatzeko lehenengo garatu zen teknika eta, haatik, sinpleena. Polymerizazio mota horretan, monomeroa, elkargurutzatzailea eta hasarazlea disolbatzaile batean nahasten dira, moldearekin batera (8.a irudia). Ondoren, hasarazlearen aktibazioa eragiten duen energia (argi ultramorearen edo beroa, adibidez) aplikatzen da, polymerizazio-erreakzioa has dadin. Lortzen diren polimeroak bloke- edo monolito-itxura izango dute (9. irudia). Hala ere, oro har, bloke-polymerizazioarekin lortzen diren polimero monolitikoak xehatu eta bahetu behar direnez, tamaina handia eta forma irregularrak dituzten partikulak lortzen dira. Ondorioz, horrela garatutako MIPek masa-transferentzia moteleko zinetika izan ohi dute. Desabantaila horiei aurre egiteko, MIP mikropartikula edo nanopartikula esferiko eta homogeneoak ematen dituzten beste teknika batzuk garatu dira [24].



9. irudia. Roxitromizina molde bezala erabilita makrolidoen adsortzioa lortzeko sintetizatutako (a) MIP eta (b) kontrol monolitoen ekorketazko elektro-mikroskopioa (SEM) irudiak. [34]-tik egokitua.


2.3.2. MIP esferikoak

Polimero homogeneousagoak lortzeko asmoz, hauspeatze edo emulsio bidezko polimerizazioak eta sintesia fase solidoan izeneko teknikak garatu dira (8.b, c eta d irudia). Hauspeatze edo prezipitazio bidezko sintesian, monomeroak disolbagarriak dira polimerizazioan erabiltzen den disolbatzailean; ez, ordea, lortzen den polimeroa. Beraz, polimerizazioak aurrera egin ahala, sortzen den polimeroa hauspeatu egiten da, eta horrek ondoren bere erauzketa erraztuko du (8.b irudia) [35]. Teknika hori bateragarria da elkargurutzatzaile askorekin eta disolbatzaile polar aprotiko organikoekin, eta polimerizazioa uretan gauzatzen bada, tentsoaktiboak erabil daitezke. 2013. urtean, Zhang-ek proposatu zuen DIPE estrategia prezipitazio bidezko polimerizazioarekin konbinatzea, MIP partikulen tamainaren kontrol zehatza lortzeko [36].

Emulsio bidezko polimerizazioan, bestalde, monomeroak erreakzio-ingurunean disolbaezinak dira, eta lortzen den polimeroa, aldiz, tentsoaktibo baten bidez orekatzen da (8.c irudia) [37]. Nahasketa irabiatuz eta ultrasoinuak aplikatuz, polimeroaren suspentsio koloidala lortzen da. Lortutako polimeroak esferikoak izaten dira, eta tamaina nanometrikoa izan dezakete. Hala ere, teknika horrek baditu zenbait desabantaila. Alde bate-tik, tentsoaktiboak edo emulsionatzaileak, zenbaitetan, monomero edota molekula moldeekin erreakzionatzen du. Bestetik, urak hidrogeno-zubiak sortzeko duen gaitasunagatik, monomero-molde elkarrekintzaren egonkortasuna murriztu egiten da. Urak eragiten dituen zailtasun horiei aurre egiteko, Dvorakovak eta lankideek teknika berri bat garatu zuten, non beren artean nahastezinak diren bi disolbatzaile organiko eta tentsoaktibo polimeriko ez-ioniko bat erabiltzen baitziren [38].

Fase solidoan egiten diren sintesietan, molekula moldea lotura kobalenteen bidez euskarri solido baten gainean immobilizatzen da, beirazko esferen gainazalean gehienetan (8.d irudia). Ostean, monomeroen nahasketarekin kontaktuan jarriko da, eta, nanopartikulen sintesiaren hasiera bultzatuko duten baldintzetan, polimerizazioa gertatuko da. Polimerizazio-prozesua bukatzean, afinitate handieneko MIP nanopartikulak molekula moldeari indar handiagoz lotuta egongo direnez, garbiketa-prozesu bat egin daiteke erreakzionatu ez duten monomero, oligomero eta afinitate baxuko nanopartikulak aska daitezen. Ondoren, itu molekulekiko afinitate eta espezifikotasun altua duten nanopartikulak erauziko dira (10. irudia). Gainera, fase solidoan sintetizatutako MIP nanopartikulek afinitate altuko lotura guneen banaketan homogeneousotasun handiagoa adierazi dute beste tekniken bidez sintetizatutako polimeroekin alderatuz [6]. MIP horietan eratutako lotura gune guztiak orientazio berean kokatuta daude, partikularen gainazalean, antigorputz monoklonalekin konparagarriak izanik [39]. Sintesi-estrategia horren desabantaila nabarmenena etekin baxua da. Horri konponbidea emateko, 2018. urtean,

Ashley-k eta lankideek, beirazko esferak euskarri solido bezala erabili beharrean, mikrosfera magnetikoak erabili zituzten [40]. Esfera magnetikoek, beirazko esferak baino gainazal espezifiko handiagoa izatean, molekula molde kantitate handiagoa immobilizatzea ahalbidetzen dute. Gainera, afinitate baxuko MIPak banatzeko pausoa iman baten laguntzaz eman daiteke, afinitate altuko partikulen erauzketa erraztuz eta, beraz, sintesiaren etekina hobetuz.




10. irudia. CB₁ hartzaile kannabinoidearentzat, fase solidoan eta epitopo bidezko inpresioa erabiliz, sintetizatutako MIP eta NIP nanopartikulen SEM bidezko irudiak eskala ezberdinetan. [41]-etik egokitua.

Gaur egun, biomedikuntzaren arloan tamaina nanometrikoa duten MIPen sintesia hobesten da (MIN, *molecularly imprinted nanoparticle*). Batez ere, gainazal espezifiko handiagoa izateagatik itu molekularekiko lotura hobetzen delako eta, beraz, antigorputz artifizial bezala erabiltzeko garaian propietate hoberenak aurkezten dituztelako. Gainera, nanopartikula esferikoak oso erregularrak eta tamaina handiagoa duten MIPak baino egonkorragoak direnez, hobeto sakabanatzen dira ingurune likidoetan [3].

2.3.3. MIP mintzak

Molekulekin inprimatutako polimerozko mintzek (*molecularly imprinted membranes*, MIM), azalera espezifiko handia duten egitura porotsu finak direnez, itua inprimatutako guneetara iristea errazten dute (11. irudia). Orain arte, itu moduan erabili diren makromolekula biologikoen artean, proteinak eta DNA nagusitzen dira.




11. irudia. Polietsulfonazko mintz hutsaren SEM irudia, a) zeharkako ebaketan eta b) goitik begiratuta; eta MIPak dituen mintzak c) zeharkako ebaketan eta d) goitik begiratuta. [44]-tik moldatua.

Mintz horien sintesirako, gaur egun, hiru estrategia erabiltzen dira. Alde batetik, hiru dimentsioko sare polimerikoan oinarritzen den teknika dago, baina zenbait desabantaila ditu itu biomakromolekularrak erabiltzerako orduan; hala nola, egituren konplexutasuna eta malgutasun konformazionala. Bestalde, bi dimentsiotan oinarritutako MIMen sintesian, oinarritzko mintz baten gainean MIPen geruza mehe bat sortzen da, eta, horri esker, hiru dimentsiotako inpresioan agertzen diren lotura guneen eskurgarritasun-arazoei edota molekula molde handiak harrapatuta geratzea bezalako zailtasunei aurre egiten zaie [42]. Azken estrategia MIMak aurretik sintetizatutako MIP partikuletatik abiatuta sortzean datza, non mintz batean MIPak txertatzen baitira [43].

3. APLIKAZIOAK

Molekulekin inprimatutako polimeroek antigorputz naturalak imitatzeko aurkeztzen duten gaitasuna eta itu batekiko erakusten duten espezifikotasuna eta selektibotasuna direla eta, aplikazio ugari izan ditzakete (12. irudia) [3, 45, 46].



12. irudia. MIPen aplikazioen eskema.

3.1. Bereizketa-teknika analitikoak

Bereizketa-tekniken artean, gaur egun, fase solidoko erauzketak (*solid phase extraction*, SPE) erabilera hedatua dauka lagin biologikoen aurretratatamenduan. Teknika horretan erabiltzen diren ohiko erauzleekin konparatuta, MIPak analitoarekiko selektiboagoak dira, eta, ondorioz, interferentzien ezabatze eraginkorragoa lortzen dute. 1994. urtean, lehen aldiz, Selligren-ek pentamidina farmakoarekiko selektiboa zen MIPa garatu, eta SPErako erauzle bezala gernu-laginetan aplikatu zuten [47]. Harrezkero, MIPetan oinarritutako erauzleek bilakaera esanguratsua jasan dute, eta, SPE teknikaren modalitateen garapenarekin batera, analisi-metodoen selektibitatea hobetzea lortu da [48].

